



**Gizartearen eta
ekonomiaren etorkizunaren
ikuspegi orokorra izanda,
toki garapenaren eredu
sendoa sor daiteke.**

Zergatik bihurtu da
Ermua jende guztiak
egoteko desiratzen
duen leku?

Ermuko Udala gizartearen, ekonomiaren
eta politikaren eragile guztiekin lan egiten
duen tokiko erakundea da, pertsonen
eta enpresen aldeko apustua eginda,
hauek eskaintzeko:

**Ulergarritasuna
Laguntza
Jakintza
Azpiegiturak
Sinesgarritasuna
Konpromisoa**

943 17 91 51
ermua.es
dl@udalermua.net



ermua.es





Ekiteko gogoa duen hiria

Enpresa eta teknologia azpiegiturak eskaintzen ditugu, garai berriekin bat egiten duten eta gizarteari aurrerabidea eta bizi kalitatea eskaintzen dizkioten enpresa eta pertsonentzat.

Ermuak gogoa dauka. Aurrera egiteko, garatzeko eta gizarte eta ekonomian dauden egoera berrietara egokitzeko gogoa. 10 urtetan bete diren estrategiek eta egitasmoek eredu nazionala bihurtu dute Ermua, teknologia gizartearen eta enpresaren ezartzeko orduan.

Pertsona ekintzaileengan uste osoa dugu, eta badakigu pertsona horiek aurrerapena eta bizi kalitatea ekarriko dizkigutela gero eta hurbilago dagoen etorkizunean.

Zure proiektua sustatzeko prest.



Enpresa egitasmoak

Ikus-entzunezko enpresak, teknologiaren arloko proiektuak, Ikerkuntza.

Teknologia eta diseinua

Erakinek abiadura handiko konexioa eskaintzen du, datuak bidaltzeko eta bideohitzaldiak egiteko, eta enpresen artean topaketak egiteko gune ugari ditu.

Zer eskaintzen du Izarra Centrek?

Topagune berritzaile bat, jakintza garatzeko eta partekatzeko.

Zentro hau balio erantsi handiko espazio bihurtu nahi dugu, jakintzari eta banda ultrazabalen zuntz sareari lotuta dauden espazio eta zerbitzu aurreratuak behar dituzten enpresa egitasmoak bertan hartzeko asmoz.

Lekurik hoberena, bertan enpresa proiektu bat segurtasunez kokatzeko.

Tokiko erakundeentzako laguntza.

Laguntzak eta bekak

Laguntza ekonomikoa, Etxebizitzaren gizarte alokairua, Plangintza, Negozio plana.



Zuntz optikozko sare publikoa

Zuntz optikozko azpiegitura, konexio abiadura handia behar duten herriar eta enpresa guztiei konexioa bermatzen diona.

Zer ahalbidetzen du zuntz optikozko sare bat edukitzeak?

Konexio azkar batek gizarteari ahalbidetzen dio gizarte eta enpresa esparruan aurreratzea.

Zuntz optikozko sarea instalatzeak ahalbidetu du estrategia bat garatzea, eta hala, datuak gora nahiz behera kargatzeko sarean konektatuta egotea funtsezkoa da ematen ditugun zerbitzu publiko berriak eskaintzeko orduan, datu horiek, gainera, nahitaezkoak baitira gizartearen eta ekonomiaren premia berriei erantzuteko.

Aurrerabideak behar duen ingurune egokia.

Teleoperadorea aukeratzeko askatasuna

Pertsona edo enpresa bakoitzak erabaki dezake zer konexio nahi duen dauden eskaintza guztien artean, telekomunikazioetako operadore jakin batekin eskusibitate konpromisorik gabe.

Lagundutako hezkuntza sarean

Sareak erraztuko du prestakuntza ereduak ezartzea, mundu osoko hezkuntza zentro, unibertsitate eta ikerkuntza zentroekin konektatuta. Horrez gain, eskolak bideohitzaldiaren bidez jasotzeko aukera eskaini ahal izango zaie gaixo daudelako edo beste edozein arazorengatik ikastetxera joaterik ez daukaten ikasleei.

Gizarte laguntza online

Adinekoak zerbitzu telematikoez baliatu ahal izango dira eguneroko beharretarako laguntza jasotzeko eta egunerokotasunean hobetzeko, etxean bertan norberari egokituakoa laguntzaren bidez, etxeko tresna erabiliz.



Zer eragin izango du Ermuko bizilagunentzat?

Orain irudika ditzakegu gaur egun bizitza ulertzeko dugun modua aldatuko duten zerbitzuak.

Pertsonen bizi kalitatearen hobekuntza.

Osasun laguntza etxean

Etorkizunean, pertsona guztiek eduki ahal izango dute etxean telelaguntza sistema bat, etengabeko osasun laguntza behar dutenentzat, pertsona, eta era horretan saihesbiko dituzte beharrezkoak ez diren lekualdaketa eta ospitaleratzeak.

